

# Marmari

Leitzako  
aldizkari  
gaztea



Leitzako produktu  
onenekin egindako

# edabe magikoa



# ale honetan:



- Argitaratzailea: MARMARI euskara taldea
- Diseinua eta maketazioa: Allende Arnaiz
- Laguntzaileak: Leizta, Goizueta, Areso eta Aranoko Udalen Euskara Zerbitzua



# Marmari

## aldizkariaren

### 2. alea, aizu!

**L**ehendabizikoa atera zenean bigarrena izanen zenik ez genekien. Jendearen harrera ikusi behar. Nonbait, jendeari gustatu egin zitzaion (edo hori sinestarazi digute) eta berriz ere plazara goaz, ausarki, kontent, leitzar kritiko guztien iritziaren galbahetik pasatzera.

Plazara atera (edo erori) baino lehen, orde, geure buruari begiradaxo bat ematea komeni, portsiakaso. Zer ote da gustatu zaiena? zein ote meritua? gustatuko ote zaie bigarrena? Galdera-dantza gogoan, hainbat erantzun boteprontoan. Jalgi daitezen, zapla!, jendartera:

**1** Madein Leitza (Leitzan egina). Durdik ez dena bertako produktoak kontsumitzea gustuko du leitzarrik. Eta Marmari aldizkaria horixe da, bertan egosia, bertan jateko. Leitzakoa ez beste inongoa.

**2** Euskaraz egina. Garai batean meritua izan zitekeen. Gaur egun ez. Espero litekeena besterik ez. Izan ere, gazte talde batek Leitzan aldizkari bat erdaraz ateratzea, edo elebidun ateratzea ere, arraroa litzateke gaur egun. Euskara denez bertako hizkuntza, bertako aldizkariak bertako hizkuntzaz.

**3** Taldean egina. Hala da, bai, eta hala behar du, koloretako aldizkaria izanen bada, eta ez pertsona bakarraren tono bakarreko sermoia. Mar-

**Bertako produktoak kontsumitzea gustuko du leitzarrik. Eta Marmari aldizkaria horixe da, bertan egosia, bertan jateko**

mariko bederatzi kideon eskuen hatz-aztarnak aurkituko dituzue hemen, baina zuek ere zuen marka uzteko tokia baduzue, nahi izanez gero.

**4** Itxura polita. Presumitzea ez omen da ona baina, tira, tarteka ere lumak harrotzea ez da txarra. Esan beharra dago, hala ere, horren kulpantea, neurri handi batean behintzat, maketazioa egin digun Allende Arnaiz oiartzuarra dela. Beste guztia gurea da, baina badakigu zein den legea, «bakoitzari berea eta, hau, Allende, zurea».

**5** Gaiak. Hagitz garrantzitsua. Aurrekoa anitza zen bezalaxe, hau ere hala da: Leitzako musika taldeak, droga, hizkuntza, gazte mugimendua, iritziak, ligatzeko aholkuak, dantzariak, Sahara... Hauetako bakar bat ere gustuko ez baduzu, kezkatzen hasi zaitzke.

**6** Argazkiak. Jakina! horretxek ere jarri ditu leitzarrik aldizkaria gotik behera astintzen. Zer argazki ikusiko ote duten, hango hura nor ote den,... «alu ok nee argazkie're ateko ote due?»

Aldizkaria gustokoa izan bada, gure ustez, arrazoi horietxengatik izan da. Horregatik jarraitu dugu oraingoan ere bide beretsutik. Esan bezala: bertan egosia, bertan jateko. On egin!



# Leitza eta

Iepa gazte!

Jakin nahi al duzu Leitza egin diren rock kontzertuei buruz zertxobait gehiago? bai, ezta? ba, eman diezaiozun errepasotxo bat!

Dakizun bezala, gure herriak betidanik izan du tradizio handia rock kontzertuekin. Urtetan ezaguna izan da Leitza gazteen artean, bertan antolatzen diren kontzertuengatik. Kontzertuen asuntua azkenaldian nahiko lasai dagoen arren, orain dela lauzpabost urte, udaberri partean, kontzertu potolo bat antolatzen zen.

Alde batetik Euskal Herri mailako taldeek ekitaldiak antolatzeko orduan, Leitza beti hartu izan dute kontuan: adibidez, Ikasle Abertzaleak-ek «2. Ikasle

# Rock-a

Eguna» Leitza antolatu zuen eta 1997ko maiatzaren 3an izan zen kontzertua: **LATZEN, KASHBAD, SU TA GAR, DEF CON DOS ETA GOZATEGI**. Iaz ere, EHEren Euskararen Tunelak Leitza geldialdia egin zuen, 2000ko martxoaren 18an: **ETSAIAK, GAIZKIÑE ETA SUKUI**.

Kontzertu handi horietako batzuk Torrea batzordeak antolatu izan ditu: **LIN TON TAUN, ETSIAK, EXKIXU,...**

Torrea Batzordeak, Intsumiso taldeak, Gazte Asanbladak eta abarrek ere

Euskal Herrian oso famatuak diren taldeak ekarri izan dituzte Leitza: **HERTZAINAK, KOMA, SA, LA POLLA, EL CORAZÓN DEL SAPO, ANESTESIA, SU TA GAR, ETSIAK, BIZKARREZURRA, DEABRUAK TEILATUETAN,...**

Aipatu behar da ere 80. hamarkadan Gaztetxera, garaian furi-furian zeuden punk taldeak etorri zirela: **CICATRIZ, RIP, ESKORBUTO, BARRICADA,...**

Orain dela bizpahiru urte Kirkil eta Adur tabernak ere kontzertuen moda honetara apuntatu ziren: **BEER MOSH, STORBAIS,...**

Kanpoko taldeez aparte Leitza ere baditugu bertako rock taldeak: **BERPIZTU, PULKORP** eta jada desagertuak dauden **LAUKITIK IHES, IÑOR ETA TXORROMORRO**.

Behar bada, talderen bat aipatzea ahaztu izan zaigu, baina gure asmoa oroitzapen xamurrak gogora ekartzea izan da.

Bukatzeko, Leitza rock talde berriei zorte ona opa diegu, ea egunen batean aipatutako talde horiek bezain ospetsu bihurtzen zareten! Animo eta segi aurrera.

**Kanpoko taldeez aparte Leitza ere baditugu bertako rock taldeak: Berpiztu, Pulkorp eta jada desagertuak dauden Laukitik Ihes, Iñor eta Txorromorro.**



Ezkerreko argazkian Leitza 'BERPIZTU' taldea





# Drogak

## kontrolpean?

**A**zken hilabeteotan, herrian drogen inguruan dagoen kezka begibistakoa da. Gai honen inguruan hainbat komentario aditzen ditugu. Baina, zer da droga? eta drogamenpekotasuna? zein dira ondorioak? zer egin dezakegu? galdera hauei erantzuna bilatzen hasiko gara.

Droga, organismoan barneratu ondoren, nerbio sistema zentralari eragiten dion substantzia da. Pertsonaren pertzeptzioan eta jokabidean aldaketak sortzeko ahalmena du. Adulterazioak, gaindosiak, deliriumak, menpekotasuna eta tolerantzia eragin ditzake.

Drogak ez dira bakarrik kokaina, heroina, haxisa edo sintesi drogak. Horiez gain, kafeina, alkohola, nikotina, farmakoak,... aipatu behar dira. Ikus dezakegunez, guztiok bizi ga-

ra egunero drogekin eta, beraz, ez da marginazio-egoeratan dauden pertsonen soilik dagokien zerbait.

### Eta zer da drogamenpekotasuna?

Drogamenpekotasun fenomenoak ez da berria. Drogak beti egon dira, gaur egun daude eta egon dira. Ezin dugu esan drogak onak edo txarrak direla, esan dezakeguna zera da, horiez egiten dugun erabilera izanen dela mesedegarria edo kaltegarria. Beraz, gure helbu-

**Drogak ez dira bakarrik kokaina, heroina, haxisa edo sintesi drogak. Horiez gain, kafeina, alkohola, nikotina, farmakoak,... aipatu behar dira**



rua, drogak dauden gizarte batean, hauek kontsumitzea erabakitzen badugu, hauek kalterik egin gabe bizitzen ikastea da.

### Droga kontsumitzaile ezberdinak daude:

**Noiz behinkakoak:** noiz edo noiz drogen bat erabiltzen duten pertsonak.

**Neurriz gainekoak edo konpultsi-boak:** behar bezala kontsumitzen ez duten pertsonak; osasunari kalte egiten diote eta menpekotasunezko harremana dute drogekin.

Gai honen inguruan, gehienetan, pertsona helduek, teknikariek,... hitz egiten dute; eta zertaz? gazteez. Hau dela eta, gazteei gai honen inguruan dituzuen iritzia, hausnarketak, usteak, proposamenak, alternatibak,... adierazteko aukera emateko ordua dela iruditzen zaigu. Drogen inguruan, normaltasunez, presiorik gabe, hipokrisirik gabe eta epaitu gabe hitz egin eta gaia landuz. Hau dela eta, gazte guztiak gai honen inguruan eztabaidatzeko proposamena egiten dizuegu, antolatuko dugun gazte topagunean. Honen berri, hurrengo asteotan izanen duzue.

Besterik gabe, gogoratu gure bizitzaren eta historiaren protagonistak gerok izan behar dugula.


Ez zaitzatela kontrolatu, kontrala itzazu.



# Leitzelarreko altxorra

**P**atxik bigarren aldiz kantua entzun zuenean zalantza guziak uxatu zituen: «Horixe baietz, okil bular-gorri hegal-motzaren kantua da, dudik gabe» pentsatu zuen. Europako Txorizaleen Elkarteko katalogoaren arabera soilik Alemaniako ohian beltzeko eta Eslobeniako basoetan aurki zitezkeen zenbait ale, eta desagertzeko zorian zeuden espezieen zerrendan aspaldi sartu zen. Okil hau beste guztien artean bereizten zuena, eta hainbat ikerketa, tesi eta liburu mardul eragin zuena, bere ezkerreko hegala zen. Hain zuzen, hegal hori eskuinakoa baino zentimetro erdi motzagoa zen beti.

Europako alde honetan eta, beraz, gurean, ez zegoen txori honen aztarnarik.



Baina  
Leitzako  
zaharrenek

antzeko zerbaiten deskripzioa egina zuten behin baino gehiagotan, eta ehiza garaiko tertuliatan entzundakoez ere susmoak piztu zizkioten aspaldian. Marka litzateke, gero, Leitzan espezie

honen arrastoak antzematea. Zer esanik ez aleren bat aurkitzea!! Itxaropen horrekin antolatuta zuen Patxik Leitzako basoen azterketa xehea eta sistematikoa. Bakar-kako lana, pazientzia eta fede handikoa, inondik ere. Batez ere, fruituak jasotzea miraria litzatekeela jakinki.

Horrexegatik, bihotzak ia-ia huts egin zion okil bular-gorri hegal-motzaren kantua Aritz Malkorreko pagoen artean aditzaerakoan: «TXIOTXIO-TXIRRI-PIPI-TXIOTXIO». Berehala, hainbestetan egindako mugimendu mekanikoaz, sorbaldatik zintzilik zeraman kaseteko «play»ari eman eta grabatuta zeukan erreklamoa jarri zuen: «TXIRRI-TXIO-TXIO-PIPI-TXIOTXIO». Geldi-geldik, arnasa hartzeko beldurrez, adi-adi jarri zen eta bigarrenez lehengo kantu bera aditu zuen: «TXIOTXIO-TXIRRI-PIPI-TXIOTXIO». Bere susmoa egia zen, beraz. Leitzan ere bazen okil bular-gorri hegal-motzaren aleren bat.

Kantu berezi hori entzun zuenetik Patxik ez zuen pakerik izan. Hurrengo 4 asteak Aritz Malkorreko gordelekua prestatzen eman zituen. Argazkia atera ahal izateko beharko zuen gordelekua, alegia. Gaur adar batzuk bildu, bihar ohial puska bat eraman, etzi hostoz estaltzen hasi, etzidamu... Egunero-egunero, baina oso pixkanaka, okil bular-gorri hegal-motza ez izutzeko kontu handiz, demostrazio zientifikoa izanen zen argazkia atera ahal izateko behar zen gordelekua eraiki zuen.

Eta eguna ailegatu zen, azkenean. Basoaren zati bat bailitzan, goitik behera







berdez jantzita eta aurpegia bera goroldio hezeaz tindaturik, Patxi poliki-poliki abiatu zen Sarasaindik gora bere gordelekura. Bertara iritsi ondoren, ia ordu bete behar izan zuen argazki kamara, tripodea eta kaseta batere soinurik gabe jarri ahal izateko. Azkenean, eta ordurako izerditan blai, dena prest utzi zuen eta esperoan gelditu zen. Tarteka, «OKIL BULARGORRI HEGAL-MOTZAREN KANTUAREN DOINUARI BURUZKO XI. NAZIOARTEKO JARDUNALDIK» bilkuran erositako erreklamo-zinta jartzzen zuen: «TXIRRI-TXIOTXIO-PIPI-TXIOTXIO». Felix Rodriguez de La Fuentek programa gogoangarri hartan adierazi zuen moduan, Patxi ere beldur zen okil bular-gorri hegal-motzak bere bihotzaren taupadak entzuten ote zituen eta, ondorioz, ikaratuko ote zen. Izan ere, txori bereziki izutia eta iheskorra baitzen.

Baina, beldurrak beldur, zortea bere alde zuela jakin zuen berehala. Zorionekoa Patxi. Izan ere, oraindik hiru ordu zain egin ez zituela, aurreko egun hartan entzundako soinu hura bera entzun zuen: «TXIOTXIO-TXIRRI-PIPI-TXIO-TXIO». Instantean, aukera galtzeko beldurrez, bere erreklamoari eragin zion: «TXIRRI-TXIOTXIO-PIPI-TXIO-TXIO». Zain gelditu zen, urduri, behatza argazki-kamarari eragiteko prest, dokumentu historiko-zientifikoa jasotzeko

prest. Erantzuna uste baino hurbilagoatik iritsi zitzaion: «TXIOTXIO-TXIRRI-PIPI-TXIOTXIO». «15 metro baino hurbilago behar du», kalkulatu zuen Patxik. Eta berriro: «TXIOTXIO-TXIRRI-PIPI-TXIOTXIO». «Bertan da, bertan da!!». Patxi lehertzeko zorian zegoen.

Soinua entzun zuen tokira zuzendu zuen kamara. Nerbioen ondorioz tripodea, kamara eta gainerakoak botako zituela iruditzen zitzaion. Argazki horrek, zalantzarik gabe, okil bular-gorri hegal-motzaren inguruko ezagutza osoa eta hainbat uste irauliko zituen. Ezin zuen, beraz, huts egin. Hilabetetako lanaren fruitua izanen zen, fede irmoaren emaitza. Soinua nondik etorri zen oso ongi identifikatu zuenez, ez zuen kamara deustarako mugituko, bai baitzekien hortxetik azalduko zela.

Eta, halako batean, segundu ezinago luzeen ondoren, kamararen objetiboa betetzen hasi zen. Patxik, zur eta lur, ahoa bete hortz, ezin zuen ikusten ari zena sinetsi. Bere kamaratik, detaile eta argitasun osoz, Leitzan lagun eta zaletasun kide zuen Mikel ikusten zuen. Hura ere argazki kamaraz armatuta, sorbaldatik zintzilik zeukan kasetari eragiten ari zitzaion eta Patxik, ordurako ezagun zuen kantua garbi-garbi, inoiz baino hurbilago, entzun ahal izan zuen: «TXIOTXIO-TXIRRI-PIPI-TXIOTXIO».

**U**rtero, herriko festetan, Aurrerako Dantzari Taldeak, bere dantza saioa eskaintzen du eta aurten ere eskaini zigun saio dotore eta txukun bat. Baina tamalez, dantza taldearen saioak herriko festetara soilik mugatzen dira, antza denez, taldekoek ez dute gogo gehiegirik jartzen urte osoan zehar entsaiatu eta hor zehar dantza saioak burutzeko. Orain urte batzuk taldea maiz irte-


ten zen kanpoko herrietara dantzazera baina urteak joan urteak etorri, geroz eta irteera gutxiago egin dituzte. Nahiz eta azken hiru urteetan pare bat irteera egin, izan dituzte gehiago egiteko aukerak, baina bertan behera geratu ziren, gogo falta eta jende eskasia dela medio. Gainera, batzuk urte asko daramatzate dantza taldean eta aspertuxeak daude.

Lehen aipatu bezala, aurtengo feste-

tan dantza saio bikainak eskaini zizkiguten dantzariak. Dakizuenez, San Tiburtzio egunean, dantzariak korporazioarekin elizatik buelta egin ondoren, urteroko «Ezpatadantza» saio bikain bat eskaini zuten. Aurtengoan zoritxarrez denon artean dantzari bat falta zenez, omenaldi xume bat eskaintzea bururatu zitzaizen dantzariari. Taldeko neskek auresku bat dantzatu ostean mutilen bi taldek «Ezpatadantza» dantzatu zuten eta oroigarri bat eskaini zitzaizen Unai-  
ren gurasoei.

Dantzatu ostean, urtero bezala, dantzariak merezitako indarberritzeko ueña iritsi zitzaizen eta udaletxeko goiko are-

# Aurrerako Dantzari Taldea



Ezpatadantza. 2000ko abuztuaren 11ean



toan zerbait jateko parada izan zuten (aurten ere ez zen ogi apurrik ere sobratu, izugarrizko gosearekin amaitzen dute saioa).

Orain urte batzuk «Ezpatadantza» dantzatzen ari ziren bitartean gertatutako tirotearen ondorioz, saio honek oihartzun handia hartu zuen herritik kanpo eta geroztik ia urtero etorri izan dira zenbait egunkaritako kazetariak, dantza honi buruzko xehetasunak jakin nahian. Hurrengo egunean, «Ezpatadantzari» guztiak egunkariekin ikus daitezke, beren burua ikusteko irrikaz.

Festetako bigarren eguneko saioan, neskek eta mutilek beren aldeko saioak

## Orain urte batzuk taldea maiz irteten zen kanpoko herrietara dantzatzera baina urteak joan urteak etorri, geroz eta irteera gutxiago egin dituzte

eta baita dantza mistoak ere dantzatu zizkiguten. Lehenik, Tafalla, Tuter eta Zangotzako jotak ikusteko parada izan zen (tartean zenbait nesken barruko arropa ere ikusi ahal izan zuten batzuek). Mutilek «Berako makil dantza» txukun bat dantzatu ondoren, nesken erakustaldia etorri zen, hainbat dantza eskaini zituztelarik («Ormatxulo», «Txakoli», «Puntamotz» eta «Gipuzkoanoa»). Dantza saioa amaitzeko, beti bezala eta usadioari jarraituz, «Leitzeko Ingurutxo» dantzatu zuten.

Ea, oraingoan hurrengo urteko festak iritsi baino lehen Aurrerako Dantzari Taldearen saioen bat ikusteko aukera-

rik suertatzen den. Anima zaitezte, bai orain dantza taldean zaudetenak eta baita ez zaudetenak ere, atek denei irekiak daude eta edozein has daiteke dantzan gogorik baldin bada behintzat eta ea laster ikusten dugun berriro ere Euskal Herriko eta zergatik ez kanpoko bazterretan barrena dantza saioak eskaintzen.

### Aurrerako Dantzari Talde Txikia?

Aurten ere, bai San Juan bezperan eta baita festetako «Umeen egunean» ere, herriko umeek, «Leitzeko Ingurutxo» dantzatu zuten. Aurrera Dantza Taldeko kide batzuk aritu ziren ume hauei ingurutxo erakusten eta saio politik eskaini zizkiguten bi egun horietan, ume asko irten baitzen dantzatzera herriko plazara. Badirudi ume hauek dantzarako gogo izugarriak dauzkatela eta talde polit bat osatu da. Dagoeneko entsaizten hasiak omen dira, herrian eta herritik kanpo dantza saioak eskaintzeko asmoarekin. Beraz, badirudi badela nahikoa gogo dantzarako eta lehen izan zen afizioak, oraindik ere irauten duela gazteenengan. Ea ba, laster ikusten ditugun herriko plazetan.





# Gazteak



Leitza, 2000ko azaroaren 18a. Mahai inguru honetan «gazteak Leitza» izan dugu biltzeko aitzakia. Gai interesgarria, dudik gabe, mila adar dituena. Ezin denei heldu, ordea, eta horietako batzuen inguruan arituginen. Bilkura horretan esanak paperean jartzen saiatu garadenon intereseoak direlakoan. Baina gure ustez, garrantzitsuena eta interesgarriena, hemen irakurritakoa aitzakia hartuta, zuek ere zuen koadrillan edo lagunartean honetaz hitz egitea izanen litzateke. Gure asmoa, oraingoa, gaijartzaile izatea besterik ez da.

## Leitzan

■ Askotan pentsatzen dugu, gazteak izaki, aurrerakoiagoak gara. Baina azken aldia ikusten ari garen gauza bat da lehenagoko jarretara itzultzen ari gara, esate baterako, ezkontzarekin gertatzen ari dena. Adibide bat besterik ez da baina ematen zuen bolada batez, elizatik ezkontzea eta horrelakoak nahikoa baztertuta zeudela, fededunak ez zirenen artean behintzat,

eta orain berriz horrek indarra hartu du. Zer uste duzue. Gero eta kontsebadoreagoak gara edo zergatik gertatzen ari da?

■ Niri iruditzen zait gaztetxoak garenean paso egiten dugula gai horretaz, baina gero, urteak aurrera doazen neurrian, horrela pentsatzen duen jende askok ideia aldatzen du eta elizan ezkontzen da. Ez zait iruditzen asko fedez ezkontzen direnik. Ez dakit, garaia ailegatzen da eta ez dakit,

itxura egiteagatik edo, gurasoak pozik uzteagatik, beste batzuk behar bada federeagatik, edo.... baina nerretzat oso txokantea da urtetan horren kontrakoa izan den jende asko, ezkontzea.

■ Niretzako kasu gehienetan printzipio falta da. Jendea ez delako kontsekuentea bere ideiekin. Jendeak ez dituelako gauzak bukaeraraino eramaten. Horrek suposatzen du enfrontamenduak izatea... Sinesten baldin baduzu, ederki, oso libre zara, baina bada jende asko eta asko, sinisten ez duena eta azkenean hortik pasatzen da. Balore batzuk eduki behar dira bizitza honetan eta horrekin kontsekuentea izan.

■ Ematen du gazteok beti errebeldeagoak, kritikoagoak, aurrerakoiagoak izan gara, beti horrelako baloreak defendatu ditugula.



### errebeldeak?

**Zuek uste duzue gaur egungo gazteak ere horrelakoak direla? edo kontserbadoreagoak dira?**

■ Kontserbadoreagoak igoyal ez baina pasotagoak bai. Egon da garai bat, ardurak-eta ikusita, jendeak gogo handiagoa zuena gauzak aldatzeko, edo konpontzeko. Orain gehiago esaten da «nik paso» edo «nik nerea egiten dut».

■ Neri ere ez zait iruditzen kontserbadoreagoak garenik oraingo gazteak. Baina agian jokatzeko era aldatu da. Iniziatiba falta dago, eta erosotasun batean erori gara.

**■ Zeren ondorioz uste duzue iritsi garela egoera horretara?**

■ Bizia gero eta indibidualagoa iruditzen zait. Bakoitzak bere bidea egiten du, eta indibidualtasun horrek kolektibotik edo barne arazoetatik deskonektatzen zaitu, urrundu egiten zaitu. Gero eta gutxiago hitz egiten dugu, komunikazioa eten egiten da momentu konkretu batean. Zure herrian hutsuneak nabaritzen dituzu, gaztea zaren aldetik, baina hemen zauden bitartean ez zara kezkatzen hutsune horiek betetzeaz, beste gauza batzuk dituzulako buruan, edo ez dakit,...

■ Nik uste dut jendea oso eroso dela, onartzen edo ikusten duelako arazoak badaudela. Adibidez ikusi da herri honetan pikoloen gaiarekin edo presoen gaiare-

**«Bakoitzak bere bidea egiten du, eta indibidualtasun horrek kolektibotik edo barne arazoetatik deskonektatzen zaitu, urrundu egiten zaitu. Gero eta gutxiago hitz egiten dugu, komunikazioa eten egiten da momentu konkretu batean»**

kin: herri guztia edo gazteria guztia horrekin dago edo ideia berdina dauka baina gero ekintzak egiteko garaian ez dago inor. Beraz, ideiak-eta bai, baina gero ez dakit alperkeria den edo gogo falta.

■ Iniziatiba falta ere bai.

■ Nik bai uste dudala gazteak, eta gizartea oro har, kontserbadoreagoa dela. Badago deretxizazio bat, edozein gaietan, sexualitatea, abortoa, desmilitarizazioa, ... Nik uste dut ideologikoki ere ez dagoela lehen zegoen joera hori, kritikoa izateko, beste balore batzuk bilatzeko... Kontserbadoreagoa zentzu horretan. Konformistagoa dagoenarekin: gazteak asko kontsumitzen du, ongi bizi da, ... Pertsona kontserbadorea ez bada, printzipioz, eta kontsekuentea izateagatik besterik ez bada, ematen du gehiago mugitu beharko lukeela.

■ Adibidez, aurtan, San Juan bezperako

afarian mila lagun bildu ginen eta esaten genuen: «jode, herri ttiki baterako 1000 lagun, ze pasada», eta beti harro gaude, «hemen sekulako giroa dau», eta geroxeago errekek garbitzeko deialdi bat egin zen eta 8 lagun azaldu ginen.

■ Bizi garen moduan, hainbeste gauza egin eta ikasi beharra, eta bizitzan gure denborak duen garrantziarekin, ez gaude prest asteen bi edo hiru aldiz elkartu eta, ez ni ez aspertzeko, baizik eta herriarentzat gauzak antolatzeko, arazo bat aztertzeko... Indibidualtasun batera iristen ari gara, maila guztietan

■ Pentsatu genezake gure arazoa beste batek ere eduki dezakeela eta errazagoa dela denen artean aurre egitea, denentzat baliagarria izanen den zerbait egitea.

**■ Leitzan, gehixeago zehaztuz, zer arazo daukagu gazteok: langabezia, etxebizitza, droga,...**

■ Orokorrean Euskal Heri guztian daudenak

■ Hori adinaren arabera izan daiteke. Zauden bizitzako fasearen, adinaren eta beharren arabera arazo bat edo beste izan dezakezu.

■ Nik ikusten dudana arazo bat drogarena da. Asteburutan bilzen garen bakoitzean juerga egiteko da. Asteburuero drogatzan gara. Drogak beti hor egonen dira, baina arazoa da neurritz kanpo drogatzan





■ Edo norberak ez kontrolatzea zer eragin duen beregan

■ Nik uste dut hor informazio falta dagoela; ez dakit jendea kontzientea den droga horien eraginaz. Kontsumitzen den drogaren kalitateaz ere ez dakigu deus, zer kontsumitzen den.

■ Nik uste dut denetatik dagoela. Gazte informatuak eta desinformatuak. Droga erabiltzea ona iruditzen zait, baina erabiltzen jakinda. Informazioa behar da, zer sartzen ari zaren jakitea, baina zeure buruari buruzko informazioa ere bai. Jakitea nola jokatu behar duzun, zeure burua ezagututa. Nik uste dut informazioa badagoela. Eta desinformazioa baldin badago, beste gauza batzuen ariora dela, erosotasuna, inkonszientzia, interesa...

■ Informazio faltarena egia da baina erlatibo da, nire ustez. Informazioa daukan jende asko ere kontsumitzeko dinamika ero batean sartzen da, beste arrazoi batzuk bultzatuta: bere egoera pertsonala, arazoak, alternatiba falta, nortasun falta,... Baina alternatiba horiek ere ez zaizkio zerutik etorriko, gazteak berak ere landu eta bilatu behar ditu, eta hori hemen falta da.

■ Gero ikusi behar da informazioa ere nola ematen den, edo zer informazio klase saltzen den droga bakoitzari buruz.

Nork eta nola. Nik uste dut, bestalde, gazteentzako alternatibaren kontua oso garrantzitsua dela. Baina oso erosoak gara, gaztetxea nahi dugu, adibidez, baina beste batzuk egin dezatela lana

■ Hori beti gertatu da. Beti egon da talde txo bat lan egin eta bultzatu duena eta gero gainerako jendea atzetik. Lanerako aukerak badaude, eta zerbait egin nahi baldin baduzu badituzu aukerak, baina jendeak ez du lotu nahi.

■ **Gazte mugimenduan zentratzeko, Leitzan izan diren esperientziak begiratuko ditugu, garai bateko gaztetxetik hasita.**

■ Oso garai berezia izan zen. Ez zen izan gaztetxe hutsa ere. Bi gai oso potente el-

kartu ziren, gaztetxea bera eta autobiaren ingurukoa, akanpada,... Jende pila bat elkartzen zen Leitzan asteburuetan. Gaztetxean, egia esan, antolakuntzaren aldetik ez zen deus handirik egin, kontzertuak gehienbat, baina bestalde hasieratik oztopo asko jarri zitzaizkion eta ez zen biderik izan gauza asko ere egiteko, dirulaguntzak,... Eta gertatu zen arestian esaten ari ginena, jendea kontzertutara joateko prest zegoen, eskertzen zuen etxetik atera eta leku bat edukitzea, baina lanerako... Asteburutan, hala ere, jende asko etortzen zen eta horrek ere gaintitu egiten gintuen. Gero, herrikoak gelditzen ginen, ez ginen horrenbeste eta gainera gaztetxearen aurka ere gauza asko esaten zen, traba asko, eta horrek ere ez zuen lagunduko. Azkenean itxi zuten arte.

■ Nik uste hasieran lan dezente egin zela, etxea konpondu, beheko sua, barra moldatu... Baina gero asko jeitsi zen.

■ Bestalde, herriak ez zuen inoiz gaztetxea onartu. Beti, hasieratik, kontra. Ondoren, ezinezkoa ematen zuen beste gaztetxe bat izatea.

■ Orain ere gaztetxea esaten denean jendea lehengoaz oroitzen da. Oso erreferentzia txarra dauka jendeak.

■ Horrelako giro bat daukazunean oso zaila da gero lan egitea. Gehiago egoten

## drogak

**«Droga erabiltzea ona iruditzen zait, baina erabiltzen jakinda. Informazioa behar da, zer sartzen ari zaren jakitea, baina zeure buruari buruzko informazioa ere bai. Jakitea nola jokatu behar duzun, zeure burua ezagututa.»**







ginen kanpora begira, deus antolatzea pentsatzen baino. Baino nik oso oroitza-pen onak ditut. Garai oso berezia, baina polita. Jende asko ezagutu genuen,...

### ■ **Eta gaur egun zer giro somatzen da?**

■ Gaur egun ere arazoak badaude, gauza gogorak gertatzen dira. Baina behar bada lehendabiziko bi egunetan hitz egiten dugu eta hortik aurrera gaia aparkatzen dugu eta hor gelditzen da.

■ Guk gure aurretik oso jende langilea izan genuen eta hori nabaritu zen. Agian lehenago jendea mugituagoa zen. Edo agian orain taldeak itxiagoak dira, edo itxiagoak daude,...

■ Nik uste dut, lehen bezala, orain ere badagoela jende langilea, baina jendearen erantzuna, erreakzioa motelagoa dela. Sistemak ere ikasi du jendea pasiboago bihurtzen, gazteak eta gazteak ez direnak. Jende pasiboagoa dugu, indibidualistagoa...

■ Orain dela bi-hiru urte gazte asanbladarekin hasi ginenean, biltzen hasi ginenak kriston harremana egin genuen, koa-drillismo hori ere gaintutuz, eta oraindik segitzen dugu. Gauza positibo bat izan zen. Bileraz aparte ere harremana mantendu da, eta igoal hori da atera den positiboena. Gero hasi ginen gaztetxearekin mugitu nahian, bilera batzuetan jende asko bildu zen, udaletxearekin harremanetan-eta...

■ Guk lokal bat nahi genuen eta Karrapekoa proposatu ziguten. Guretzat ez zen oso egokia, nahikoa hotza zen. Aurrera ere proposatu ziguten. Baina beti ematen zuen norbaiten menpe egon beharko genuela. Guk gestionatuko genuen lokal bat nahi genuen. Gero diskoteka zaharra proposatu zen. Baldintza batzuk proposatu zitzaizkigun, ez geunden denekin ados baina asanblean baietz erabaki zen. Lokal handia, urruti samar, baina bueno, «denborarekin aldatuko dugu» pentsatzen genuen. Arazo batzuk bazituen: argia, ura, bentilazioa, ... Hori iazko ekainean. Erantzun behar genuen eta sinatu egin genuen, baina beraiek ez zuten erantzuten deus ere, udal berria zen, ... Pestetan han zer-

### gaztetxea

**«Guk lokal bat nahi genuen eta Karrapekoa proposatu ziguten. Guretzat ez zen oso egokia, nahikoa hotza zen. Aurrera ere proposatu ziguten. Baina beti ematen zuen norbaiten menpe egon beharko genuela. Guk gestionatuko genuen lokal bat nahi genuen»**

bait antolatzeke asmoa genuen eta udalak ere ez zigun deus esan. Hala ere, gazte asanbladan geundenak ez genuen ilusio handirik hor sartzeko, arazo gehiago ikusten genituen. Baietz erabaki genuen jendearen ilusioa mantentzeagatik, eta ikusi genuenean udalak ez zuela erantzunik ematen hasi ginen presioa-eta egiten. Baina lokal horrekiko gure ilusioa ere oso erreala ez zenez, gure presioa ere ez zen horrelakoa izan. Egitan nahiko bagenu igoal gogoragoak izanzen ginen. Gure aldetik kriston hutsunea eman zen baina bere arrazoa bazuen.

■ Ni harrirituta gelditu nintzen jendeari esan zitzaioanean «bale, orduan hor sartuko gara», eta nola gero jendea ez zen ohartu ez geundela barrenean; nola gai horrek ez zuen polemikarik edo eztabaidarik sortu, jendeak nola ez zuen galde-





tzen zergatik ez ginen sartu... Nik uste gazte jendearen aldetik mugimendu gutxi dagoela baina egitan lokal bat nahi duela eta behar duela. Gero zenbat eta nola mugitzen den, hori oso eztabaidagarria da. Baina harriria nago jendeak nola ez duen deus esaten.

■ Ikusten da gero eta erosoagoak garela eta, deus egin gabe, esperean gaudela.

■ Udaletxeak ere utzi zigun «periodo de prueba» moduan. Eta ikusten zuten gure aldetik ere oso mugimendu eskaxa. Orduan ere beraientzat ez zen oso komenigarria, edo zalan-tzak zituzten.

■ Seguraski ez zenituzten oso erreferentzi onak izanen eta beldurtuta ere egonen ziren.

■ Nik uste dut alde batetik normala dela beldurra edukitzea eta garantzitsua dela gazte asanblada sendo bat egotea eta hortik gauzak antolatzea. Horrela ere konfiantza handiagoa izateko.

■ Konforme. Mugimendua behar da lokal hori konpentsatzeko. Baina beste alderdi bat ere egon daiteke. Lokal horrek sortu dezake mugimendua.

■ Lehengoan egon ginen horretaz hitz egiten. Beldurra emanen liguke orain lokal batean sartzeak. Lehen zerbait lortu baldin bazen gure artean, orain bukatua dago, itzalia dago. Baina badago kontrako pentsamendua, alegia, lokal bat balego horrek behartuko gintuzkeela mugitzera. Gaztetxeak berak guregan sortzen duen ilusioa eta konpromisoa.

■ Nik uste Udalak jendearen aurrean, egin nahia justifikatu nahi duela, eta horregatik uzten du lokala. Baina plangintza bat-edo eskatzen dizute.

■ Azken finean, ofiziala da eta beraiek ezin dizute eman eta «tori, zuk horrekin nahi duzuna egin». Justifikazio bat behar du, «gu zerbaitengatik egiten ari gara hau, eta inbertsio bat egiten ari gara».

■ **Gazte mugimenduarentzat, Lei-**



**tzan, lehentasunak zein izanen lirateke gaur egun?**

■ Gaur egun lokala, esate baterako, ez. Gaur egun, berriz pizten hastea, behar horiek ikustea. Gaur egun lokal bat ematen dizute eta «ze in beau?». Egoteko? Ez badaukagu zerbait egiteko gogoia,... tabernak hor dauzkagu, egoteko. Igoal, hasi ondoren, hemendik bolada batera bai, pilak kargatu ondoren, motibatu ondoren.

■ Niretzako gazte asanblada bat oso gauza zabala da. Lokalaz eta arazoez gainera beste gauza batzuk egin litezke: kultura desberdinak ezagutu, aisialdia, arazo mota oso ezberdinak... Bildu eta ez du nahi-taez langabezia hitz egin behar. Iritsiko da horretaz hitz egiteko momentua, baina igoal gogoia dugu denak malabareakin etortzeko, edo gure artean komunikatze-

ko beste modu naturalago batez, espontaneoagoa,... Arazoei ere aurre egin beharko zaiela jakinda... Baina bildu behar da nahi dugulako, gus-tora gaudelako, eta ez zeregin bat bezala.

■ **Gaia pixka bat aldatuz, Leitzako hainbat talde-tan, gazte asanblada, As-keta, dantzariak,... az-keneko urteotan emaku-me askoz gehiago bildu da. Zer dela-eta?**

■ Nik uste dut Leitzan, bai antolatzeko eta bai parte hartzeko, edozein gauzetan, lautik hiru neskak direla. Edozein gauza edo gaia dela ere.

■ Hori ez da Leitzan baka-rrik gertatzen.

■ Lekunberrin, adibidez, gazte asanbladan, gehienak mutilak dira.

■ IAren herri eskoletan, eta horrelakoetan, gehienak nes-

kak dira.


■ Nik uste dut ez dugula bizitu lehenago horrelako gauzetarako emakumeek zuten debekua, libre garela nahi dugun tokira joateko, eta lehen, berriz, emakumeak etxean egon behar zuten. Eta edozein gauza herrian antolatzen bada, igoal 45 urte-tik gorakoak denak gizonezkoak dira. Emakumeak, adin horretan, gutxiago agertzen dira, gizartea aldatzen ari delako.

■ Agian orain ematen du gauza horiek, dinamizazio lan hori, emakumearen eginkizuna dela, karrera edo ikasketa batzuekin gertatzen den bezala. Edo emakumeak ere demostratu behar duela gauza horiek egin ditzakeela, errebelatu dai-tekeela, eta demostratzeko horretan sartzen da.

**Tira, gai hauek askoz gehiago ere emanen lukete, baina aldizkarian duen espazioak ez. Ideia batzuk plazaratu ditugu, ez denak, jakina. Baina irakurritakoak zuten arteko eztabaida pizteko balio baldin badu, gure helburua lortu-tzat emanen dugu.**



# Urte askoz ika!



Aurten Leitzako ika euskaltegiaren 11.urteurrena da. Bertako irakasleek makina bat urte daramatzate Leitza eta inguruko herrietan lanean eta honetaz hizketan aritzeko asmoz hurbildu gara bertara. Hantxe aurkitu ditugu bai irakasle, bai ikasleak lan eta lan baina gurekin aritzeko tartetxo bat hartu dute.

■ **Zein helbururekin sortu zen Leitzaldeko euskaltegia?**

■ **Ika:** Etxe-Txurian barnetegiak ematen zituzten irakasleak euskaltegia sortu eta ordutegi guziak eskaintzeko asmoz hasi ziren udalarekin negoziaketetan. Hori lortu zenez geroztik Ikarekin koordinatuz ari gara lanean.

■ **Zein ziren garai hartako beharrak?**

■ **Ika:** Garai hartan jende asko alfabetatu zen, baina indar handiena euskalduntzeak izan zuen.

■ **Aldaketa nabarmenik izan al da garai hartako egoeratik egungora?**

■ **Ika:** Garai haiek ez ziren errazak.

Nafar Gobernuaren aldetik ez zegoen perspektiba handirik. Azken aldian gobernuaren jarrerak okerrera egin du eta horrek euskaltegiaren bizi iraupenean eragin handia du. Euskaltegiaren bitartekoentzat, matrikula merkatzeko garaian eta material didaktikoa berritzeko garaian muga handia da. Diru laguntzak ere, gero eta eskasagoak dira. Aurten esate baterako euskararentzako aurrekontua %4 jaitsiko du, UPNko gobernuak eta euskaltegiaren eta lagileen egoera kaxkarra da.

Kanpoko egoera berriz, aldatu da. Garai batean euskaltegiak egiten zituen lanak orain beste talde batzuk egiten dituzte.



### ■ Zenbat irakasle eta ikasle talde ari zarete euskaltegian?

■ **Ika:** Lau irakasle eta bederatzi talde ari gara Leitza, Larraun, Goizueta eta Basaburun. Orain ditugun taldeak euskalduntzekoak, alfabetatzekoak eta EGA azterketa prestatzeko taldeak dira, baina ilbeltzetik aurrera beste hiru ikastaro labor emanen ditugu; bata larraungo eskolako irakasleei, bestea Beteluko gazteei eta azkena Leitza eskainiko den errakuntza ikastaroa (akats zuzentzea eta euskaltzaindiaren arauen gaurkotzea).

### ■ Zein dira irakasle batek egin beharrak lanak?

■ **Ika:** Euskaltegian lan desberdin asko izaten dira; euskaltegien artean koordinatzeko bilerak, herrietako euskara batzordeak, udan barnetegiak ematea... Beste batzuetan garbitzaile lanak, psikologo lanak, pintore lanak... Denetatik egin behar izaten dugu baina denbora gehien kentzen diguna dudarik gabe, klase prestaketa da. Taldeak txikiak eta elkarren artean hain desberdinak izatearekin, bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitu behar dugu, askotan programaketa berriak sortuz. Horretaz gain, euskaltegi txikia denez, baliabide eskasagoak ditugula esan behar da.

Azkeneko urtetan Karrape, Esanerran eta Aralar irratietan irratsaioak ere egin ditugu eta hauen prestaketa lan handia da, irratian aritzea eskolak ematen aritzetik oso desberdina baita. Alfabetatzeari zuzendutako «Etxetik-plazara» aldizkaria aurten berriz ateratzekotan gabiltza. Lan handia dago. Gizartea aldatzen ari den heinean, euskaltegia ere behar berrietara moldatu nahian dabil, beste bide batzuk irekitzen.

### ■ Gogoratzen al duzue emandako lehenengo eskola eguna?

■ **Ika:** Oso gaizki

### ■ Klaseez gain...

**«Euskaltegian lan desberdin asko izaten dira; euskaltegien artean koordinatzeko bilerak, herrietako euskara batzordeak, udan barnetegiak ematea... Beste batzuetan garbitzaile lanak, psikologo lanak, pintore lanak...»**

pasatu nuen. Gelara sartu, denak niri begira eta ni hizketan hasi beharra. Hori daukat gogoan. Ikasle izatetik irakasle izatera oso desberdina da. Ikasleak ginen garaian, irakasle berria etorri eta goitik behera begiratu eta aztertzen genuela pentsatze hutsak... Gauza asko ibili nituen buruan. Zertan pentsatzen ari ote ziren...

Halere, lehenengo klase eguna aipatu dugu, baina urtero lehenengo egunean antzeko zerbait sentitzen da.

### ■ Irakaskuntzan hainbeste urtetan aritu zaretenez, kontatzeko xeblekeriaren bat izanen duzue, ezta?

■ **Ika:** Xele-







brekeriak? Izanen dira baina... oraintxe esateko...Tira, xelebrequerak aditu bai; askotan ikasleren batek astakeriaren bat bota eta barrez ez hasteagatik, hantxe ezin eutsiz. Hara! Oraintxe etorri zait bat burura. Behin Larraungo euskaltegian, gutako bat hamabost laguneko talde batekin joku hau egiten ari zen. Begiak estali eta animalien orroak eginez bakoitzak bere bikotea aurkitu behar zuen. Pentsa han ze zalaparta sortu zen. Euskaltegia udaletxean izaki eta momentu hartan beheko pisuan batzarrean ari ziren. Bertan zen zinegotzietako bat, ea zer gertatzen zen galdezka igo omen zen gora.

Besteren bat ere izanen da. A bai! Hilabeteak landu ondoren ikasle batek ez zuen bada, bere izena uztaila zela esan! Biko taldea bikotea zela esatean hirukoari trikote deitu, afari batean «entremeses» euskaraz esateko «hilabete tartekoak» esan... Tira makina bat xelebrequeria esaten dituzte, baina meritu handia dutela ere esan behar!

**Irakasleekin beren lanaz eta esperientziak kontu-kontari ari ginela, ha-**

**ra non azaldu zaigun punttual-punttual etorri den ikasle bat! Berarekin hitz egin gabe ezin geldituko ginen! Bera Deli da, orain dela 4 urte Elchetik etorria eta hauxe kontatu digu:**

■ **Noiz hasi zinen euskara ikasten? Zergatik?**

■ **Deli:** Orain dela 3 urte hasi nintzen, nire lanean behar nuelako eta Leitza herri euskalduna denez beharrezkoa delako.

■ **Zer oroitzen dituzu lehenengo klase egunaz?**

■ **Deli:**Lehenengo eguna ez dakit, baina lehenengo hilabetea gogorra izan zen. Txinera aditzea bezalaxe. Gainera ikaskideak hemengoak dira eta ni baino gehiago zekiten. Euskara ikastea ezinezkoa zela ere pentsatu nuen. Amaiak asko animatu ninduen eta orain oso gustura ari naiz. Gustuko dut ikastea eta euskaltegira etortzea.

■ **Zein da euskara ikasten ari den norbaitentzat pausorik zailena?**

■ **Deli:**Jendearekin euskaraz hitz egiten hastea. Badakit seguru aski akatsen bat egiten dudala eta urduri jartzen naiz. Gainera, erdaraz hitz egiteko ohitura aldatzea ere zaila da, jendea horretara ohitu baitut.

■ **Urte hauetan guzietan euskara dela eta xelebrequeraren bat gertatu al zaizu?**

■ **Deli:**Jesus! Gure klasean xelebrequerak egunero izaten dira. Gauza bat dela, bestea dela, hitzen bat gaizki ulertu dugula... algara ederrak egiten ditugu.

■ **Zer esanen zenieke euskara ez dakitenei?**

■ **Deli:**Animatzeko. Leitza herri euskalduna da, baina bertakoek kanpotarra zarelak dakitenez, erdaraz egiten dizute eta hori oso eroso da guretzat. Hala ere, nik uste bertako kultura, ohiturak, ...azken finean integratzeko, hizkuntza ikastea ere beharrezkoa dela. Euskara hizkuntza polita da eta euskaltegira etortzea ez da gogorra. Guk beti ere, oso ongi pasatzen dugu.

# Sahararik Leitzara



**A**zkenean eta lan handia egin ondoren, sahararrak Leitzan izan ditugu uda honetan, 12 haur eta bi begiralek 2 hilabete igaro dituzte Leitzan. Aire berriek, leku berriak eta jende berria. Familia ugari hartu dituzte haurrak beraien etxeetan eta hori ere eskertzekoa da, nola ez. Ahaztezinezko etorrera izan da bai sahararentzat eta nola ez etxean txoko bat egin dien familia hauentzat. Herrian bertan ere beraien hutsunea nabarmena izan zen hasiera batean behintzat. Denbora zen hainbeste bizikleta herrian gora eta behera ikusten ez genituela. Afizioa behintzat ederra hartu zuten bizikleta horiekin.

Horrela bada, eta haur hauekin zer nolako elkarbizitza izan duten jakitearren, familia hauetako batzuren testigantza jasotu dugu.



■ **Zein haur izan duzue zuen etxean?**

Mohamed Salem, 12 urteko mutila.

■ **Nolatan animatu zineten saharar haur bat etxean hartzera?**

Iaz animatu ginen, saharar haurrak hona ekartzeko kanpaina hasi zenean. Iaz etorri ez zirenez, aurtan argi geneukan ume bat etxera ekarri nahi genuela. Ekartzearren arrazoia, mediku zerbitzuak eman... eta bide batez hain desberdina den kultura pixkat ezagutzea.

■ **Zer ikasi duzue beraiengandik? Zer erakutsi dizuete?**

Gauzak gehiago baloratzen ikasi dugu baina ez Mohamed-ek zuzenki erakusten zigulako, baizik eta guk hango bizimoduaren berri begenekienez, saharar ume bat izateak asko lagundu zigun hemen gauza txikiena ere baloratzen.



## Herri zapalduetikiko elkartasuna

**«Oso esperientzia polita izan da eta suguruaski hurrengo urtean berriro aukera izango bagenu hartuko genuke berriro»**

■ **Nolakoa izan zen lehen eguna?**

Denak oso urduri geunden. Lehenengo egunetan dena eman genion.

Bera zen gunea, baina pixkanaka-pixkanaka joan ginen neurria hartzen, hau da, Mohamed gure etxeko betiko ohituretara moldatzen.

■ **Zerk harritu zituen haurrak gehien?**

Mohamed gure etxean egon baino lehenago bi aldiz egona zen beste bi familiaratan. Orduan gutxi gora-behera bazekien hemengo gauzen berri.

■ **Zer botatzen zuten faltan?**

Hasieran ez zuen ezer esaten hangoari buruz baina joateko eguna iristen ari zen bezala ohartu ginen joateko gogoia zeukatela. Nik uste gehien faltan bota dutena familia izan dela.

■ **Konta ezazu beraien bihurrikeriaren bat.**

Bihurrikeriak nire 10 urteko anaiari egiten zizkion. Baloia eta nire anaiaren beste gauza batzuk gordetzen zituen. Nire anaia konturatzen zenean, orduan ateratzen zituen gordelektutik barrez.

■ **Kosta al zaie gure herrira ohi-tzea?**

Lehenago esan dudana bezala, egona zen aurretik bi hiritan. Hemen hala ere gustorago ibili zen. Herri txiki bat denez, egunero ikusten ziren saharar haur guztiak eta askatasun gehiago zeukaten.

■ **Agurra nolakoa izan zen?**

Agurra gogorra izan zen baina baita polita ere. Ikusten genuen ume guztiak gustora egon zirela eta oroitzapen eder batekin zihoaztela saharara.

■ **Zer eraman zuten Leitzatik Saharara?**

Berak gehien eskatzen zuena eltze

«express»-a zen. Arropa batzuk, baloi bat, eskolako materiala, Kontserbako janaria, botikak ere eramane zituen.

■ **Errepikatzeko rnoduko esperientzia al da?**

Bai. Oso esperientzia polita izan da eta suguruaski hurrengo urtean berriro aukera izango bagenu hartuko genuke berriro.

■ **Badakigu, Sahara aldera bidai bat antolatua, dagoela; joateko asmorik?**

Hasiera batean nik joateko asmoa nuen baina azkenean ama animatu da. Nik nahiago dut orain ama jotea, lehenengo urtea izanik leitzar jende asko bai-fioa. Nik badaukat nahiko denbora hurrengo urtean joateko.



Joseba Vicente

■ **Zein haur izan duzue zuten etxean?**

Brahim Hamdi Henini eta Ahmed, Salem Mohamed Lamin, 14 eta 10 urteko bi mutil.

■ **Nolatan animatu zineten saharar haur bat etxean hartzera?**

Egoera jakinik, lagundu nahian. Horretaz gain haurrak ekartzeko kanpaina bat egin zen herrian eta gu ados geunden.

■ **Zer ikasi duzue beraiengandik? Zer erakutsi dizuete?**

Maitasuna emateko errezetasun handia dute eta segituan jartzen zara egoera berri batera, edozein delarik egoera. Zaharrenak kontatuta, desertuan baldintza oso txarretan bizi dira maila guztietan, hau da, ekonomikoki, zerbitzu mailan, ospitaleak, ikasketak ... gauza oso gutxi dituzte.

■ **Nolakoa izan zen lehen eguna?**

Oso nekatuak iritsi ziren. Gu haurrak ongi hartzen saiatu ginen. Irtsi eta oinetakoak erosi genizkien, ondoren dutxatu eta arropa garbiak jantzi genizkien.

Bazkaldu eta zaharrena lotara sartu zen eta gaztea nerekin futbolearen aritu zen, segituan hartu zuen konfidantza.

■ **Zerk harritu zituen haurrak gehien?**

Zaharrenari ezerk ez, ezagutzen baitzuten. Gazteena pentsatzen dut denak harrituko zuela: kristalak, grifoak, argiak ...

■ **Zer botatzen zuten faltan?**

Familia. Nahiz eta haseran ez hainbeste, ondoren aipatzen zuten.

■ **Konta ezazu beraien bihurrikeriaren bat.**

Txiki-Park-era joan zirenean, galtzerdiekin sartu behar izaten da.

Zaharrenari, galtzerdirik ez zuelako bertan erosi zitzaizkion eta gazteak nahiz galtzerdiak eduki, berriak nahi zituen. Ezetz esatean, 15 minutuz negarrez egon zen Txiki-Park eta guztiak ahaztuaz. Azkenean erosi egin zitzaizkion galtzerdiak berari ere.

■ **Kosta al zaie gure herrira ohi-tzea?**

Ez. Lehen egunean jarri ziren.

■ **Agurra nolakoa izan zen?**

Agur guztiak bezala, tristea.

■ **Zer eraman zuten Leitzatik Saharara?**

Ahal zuten guztia: arropa, dirua, josta-fluak, janaria, «olla express»

■ **Errepikatzeko moduko esperientzia al da?**

Nere ustez bai.

■ **Badakigu, Sahara aldera bidai bat antolatua dagoela; joateko asmorik?**

Nik ezin dut baina etxean denak dihoaz. Beharbada beste urte batean.

# Disonantzia bat airean tatuaturik

**I**noiz existitu den argazki negatibo galkorra izan zen. Gau hura. Whisky koloreko gaua. Itzalak, min ez eta nekatu antzean, norbaitek, asfaltoaren gainean utzi zituenekoa.

Orduan, plaza zaharrerainoko tartean, taberna bakarra zegoen zabalik. Kanela margoa usaintzen zen han. Eta, bera, han entzun genuen azkenekoz, poesia iluna errezitatzen. Egiten.

Berak, ez zituen ulertzen gure denbora eta espazioa, ezin zituen esku ahurrean gorde eta neurtu. Eta, horregatik nonbait, barruak hustutera deliberatu zen. Baina, inor, inor ez zen jabetu haren arnasaren egonaz, gehienontzat gauaren transparentzia baitzen. Ausentzia bat; finean, hutsa.

Eta guk, bitartean, hor jarraitu genuen, bide ezagunetan behin eta berriz galtzen eta itsaso berdinetan, behin eta berriz itozten. Ustez, ikusterik ez zuen jaijan. Ardo gorriaren jainkoei, neurri gabeko gehiegikeria bat motibo berezirik gabe oparitzen. Inor ez zen libratzen urte beltzaren gorespen horretan, tipo hura, puntu eta aparte hura, salbo. Eta gau hartakoa, bere ohoretan ospatutako orgia bakanala izan zitekeen edo... Aintzinako Erroman bageunde, Bako edo Dionisosi eskainitako dantza. Eta izan zitekeen... baina ez zen.

Ze, noizbait, sinestarazi ziguten pareteko erloju digitalak 2000.eko azaroa markatzen zuena. —Noizik gabeko gaua, niretzat—.

Baina, gaur mapak eta territorioak desiatzen ditugu. Gogoari, kalean gora eta kalean behera, noraezean, jarraitzen diogulako batez ere. Iparrorratzak, koloreen gaman armoniarik abstraktoena pintatzen duen artean, paisaiaren matiz infinituetan zerbait amankomuna ukitu eta sentitu nahi dugunez.

Eta imaginatzen?... Bake sentsazio

hori ekartzen dizun kolorea, zure ondoran, hor, zurekin... Baina diotenez, hori ez da lortzen aitzitik, estarta itxietan, behelainoetan galduta, arrisku eta larritasun sentsazioa gurutzatzen ez bazazu.

Berak, hitz zahar batzuk entregatu omen zituen barraren atzean, aireari inongo destinora bertaratzeko. - zuri-beltzeko erretrato bat, kontraste armonikoa norbaiten gorputzean, - Gutxira, kolore ezaren magiarekin, mila eta bat koloretako kaxa itxi egin zen, behelainoetan galdu zen, kalean gora. Akaso, amodio bat izanzen zuen farol itzalien ondoan, zain. Eta, haren itzalak kurba indefinituak izango ziren. Bukaeran, tipoaren begietan «...» ahaztu zituztenak. Betirako.


Egun gutxi barru, atarian bilatu genuen. Zerraldo. Zulo handi bat zuen bu-larraren erdian, ezerk beteko ez zuen zulo sakon eta iluna.





# Ezetz asmatu!

Eta? asmatu al zenuen Marmari aldizkariko lehendabiziko aleko argazkietan agertzen zirenak nor ziren? ez zen, bada, oso zaila! argazki bat edo beste aspaldikoa zen eta horrekin lanak izan zituzten zuetako batzuk, baina gainerakoan oso errazak ziren. Horregatik, oraingoan zailxeago jartzea erabaki dugu, bai baitakigu oso finak eta azkarrak zaretela. Hementxe dituzue, beraz, beste argazki batzuk, zuen herriko jendea ezagutzen duzuen frogatzeko. Animo!



Tira, mozorrorik gabekoak ezagutzen dituzula frogatzeko aukera eman dizugu. Baina pertsonaia izkutua baldin bada? gauza al zara ondoko hau nor den asmatzeko? Aurrekoak asmatzeagatik meritua baldin bazenuen, hau asmatuta are gehiago. Nor ote da?

# HIZKUNTZAREKIN JOSTATZEN

Ezkerreko zerrendan izen-deiturak dituzu (abizen guzti-guztiak Leitzako listinean agertzen dira eta izen guztiak Leitzaan aurkitu daitezke). Eskuinekoak, lanbideak dira. Ezkerreko izen bakoitzari, eskuineko lanbide bat dagokio. Ea asmatzen dituzun.

- 1.- Aritz Intxaurren Lizarraga
- 2.- Unai Larrea Larrea
- 3.- Nere Soroa Zelaia
- 4.- Leire Gorriti Uitz
- 5.- Aingeru Apezetxea Elizalde
- 6.- Iruñe Jaka Lasa
- 7.- Bihotz Zabala Beraza
- 8.- Jesus Apeztegia Apezetxea
- 9.- Mirari Jaunarena
- 10.- Arkaitz Arrizurieta Arburua
- 11.- Aritz Ezkurra Ezkurra
- 12.- Oinatz Loiarte
- 13.- Lorea Mendi
- 14.- Arkaitz Peña
- 15.- Joan Urrutia
- 16.- Itsaso Mariñelarena
- 17.- Hodei Ezker Eskubi
- 18.- Oihana Otxoa Mendi
- 19.- Saioa Oiartzun Zabala
- 20.- Adur Gaztañaga Landa



- A.- Meza mutila
- B.- Fededuna
- C.- Behizaina
- D.- Arrasto biltzailea
- E.- Kazetari arrakastatsua
- F.- Hazi saltzailea
- G.- Tabernazalea
- H.- Mariñela
- I.- Itzultzailea
- J.- Toponimo biltzailea
- K.- Basozaina
- L.- Karitateko monja
- LL.- Hargina
- M.- Apeza
- N.- Biologoa
- Ñ.- Bidaiaria
- O.- Lore biltzailea
- P.- Nekazari alperra
- Q.- Jostun traketsa
- R.- Metereologoa

Soluzioak: 1-K; 2-C; 3-P; 4-J; 5-A; 6-Q; 7-L; 8-M; 9-B; 10-L; 11-F; 12-D; 13-O; 14-I; 15-N; 16-H; 17-R; 18-N; 19-E; 20-G

## EUSKARA BIRTUALA

- Kaixo, Patxi, aspaldiko. Zer moduz?
- Beno, hainbestean. Baina derradan nire burua aski zahartua dakusadala.
- Tira, tira, ongi al dantzut? ederki aski dazagut ez dela horrenbesterako. Zertan diharduzu une honetan? azkenekoz hitz egin genuenean informatika lanetan zeniharduen, aholkularitzan.
- Bai, garai hartan informatikaz edozein gauza galdetzerako etor zintzaizkidakeen; besoa emanen nuke zuek niregana laguntza eske etor zenkizkidaten; ai, garai horretan etor bazenkidakidate, orduantxe lagundu zintzaketedan.
- Egia da, orduan gure zalantza guztiak argitu zeniezazkigukeen. Erantzun guztiak zenezaguzkien. Zer gerta zekizukeen, bada, orain hain etsita egoteko?
- Zer gerta zekidakeen? hamaika gauza gerta lekizkidake, eta halaxe gertatu: duela hiru urte, enpresaren krisiaren ondorioz, mila zurrumurru genentzuzkien. Zurrumuruaren benetako arrazoiak banekuski, ondorioak ere ederki nekuszake. Baina zoritarrez, beste deusi baino gehiago gure intuizioari generraizkion, eta ez genuen lortu enpresako nagusiek benetako arazoei irtenbide egokiak aurkitu ziezazkieten.
- Eta zuek ezin zeniezazkieketen irtenbide horiek proposatu?
- Bai, baina seguru aski aitzakiak besterik ez genentzuzke. Pisuzko argudioren bat begenerabiltza, baina gerok ere alperrikakoa generitzon, eta nortasunik eta ideia propiorik gabeko taldea genirudien.
- ...

\* Oharra: agertzen diren aditzak ez dira asmatuak. Den-denak «Euskaltzaindiaren Arauak» bildumatik hartuak dira. Ez dakiguna da inoiz inork horrelako aditzak erabili ote dituen, nahiz eta erreza den pentsatzea horrelako elkarrizketarik ez dela euskaraz sekula gertatu, ez behintzat modu serio batean. Ikusten da, tiraka-tiraka, absurdora iristeko bidea ibiltzeko erraza dela, eta euskal aditzak ahoa bete hortz («ahoa bete aditz» esan genezake) utz gaitzakeela. Zorionez, euskaraz ongi moldatzeko, ez da beharrezkoa «lerakutsazketek», «zaroatzenat», «bahenkit», «zazaguzkiat» edo «lihardukaketek» bezalako aditzak ikastea. (Hauek ere ez dira asmatuak, ez pentsa!)

Hurrengo hauek ere ez dira asmatuak, baina kasu honetan inoiz erabilitakoak dira, Leitzaan bildutako aditzak baitira: «niñonenen», «gitiunea», «zetiñu», «giñetiñenen», «zeunea», «zezkioune», «eidenen», «zezkeidenen», «giñekarzkiñenen». Ezagunak egin al zaizkizu? egunero erabiltzen al dituzu?



Euskaraz ez omen dago gazteon «jerga»rik. Alegia, erdaraz erabiltzen ditugun «tio», «pasote», «mogollón», «que flipau»... horien parekorik ez omen dago. Zer egiten dugu honen aurrean? bada, denok ez dugu berdin jokatzeko, eta soluzio ezberdinak bilatzen ditugu. Hauek dira horietako batzuk:

- 1.- Zuzen-zuzenean erdarara pasa eta erderaz hitz egin  
«Hicieron un concierto que te cagas»
- 2.- Euskaraz hitz egin, baina behin eta berriz erdararen makulua edo laguntza erabili, gure hizkerari «gazte» kutsu hori emanez, erderazko jergaren bitartez.  
«In zuen kontzertu bat que te cagas»
- 3.- Euskaraz esan, nahiz eta «kutsu» hori galdu  
«Sekuleko kontzertue in zuen»

Hor gutxienez soluzio bat falta da: dena euskaraz esatea, baina «gazte» hizkeraren kutsua emanez. Baina ematen du «gazte hizkera» oraindik asmatu gabe dagoela, beraz, bitartean, besteetara jo beharko dugu. Nolanahi ere, hiruen artean, ez dugu guk behintzat lehendabizikoa proposatuko. Errexa da, jakina, baina gauza errexak ez dira hain erakar-garriak, ezta? Hala ere, agian zailenera jo beharko dugu, eta gazte «kutsua» emanen dion hizkera hori gerok sortu eta asmatu.

Entretengarri gisa, eta zuen burua pixka bat estutzeko, ariketa hau proposatzen dizuegu: Nola esanen zenuke?

### «no te mosquees, colega»

- a) ez euliztatu, adiskide
- b) ez euliztatu, kolega
- c) ez moskeatu, adiskide
- d) ez mosketau, kolega
- e) .....

### «vaya cuélgue llevas, tio»

- a) a ze kuelgea daukezon, tio
- b) zelako zintzilikaketa daramazun, osaba
- c) hori da hori, zintzilikatzea
- d) zu ez zaude burutik sano, motel
- e) .....

### «que pasa, tio?»

- a) zer gertatzen da, osaba?
- b) zer igarotzen da, osaba?
- c) ze pasatzen da, hi?
- d) ze pasatzen da, tio?
- e).....

### «te hace un futbolín?»

- a) futboltxo batek egiten dizu?
- b) atsegin litzaizuke futboleanean jardutea?
- c) futboliñen ibilli nahi?
- d) jokatu nahi al dozo futboliñen?
- e) .....

### «jode tronco, vaya marrón?»

- a) enborra, zer-nolako marroia
- b) jode morroia, hori marrona, hori,
- c) jode, hi, a ze fardela
- d) hara, hi, a ze fardela
- e) .....



EZ ITXOIN MOZKORTU ARTE, EZ DA BEHARREZKOA ETA EZ DA KOMENI.



EZ SAIATU ZURE BETIKO HIZKERA EDO IZAKERA ALDATZEN. 1



EZ SAIATU ZURE BETIKO HIZKERA EDO IZAKERA ALDATZEN. 2



LASIA EGON, LASAI HITZ EGIN.



EZ BIDALI BITARTEKARIRIK. ARRISKUTSUA DA.



EZ HASI ZUZENEGI



**MUSUNZAR**  
OSTATUA  
JATETXEA  
Elbarren kalea, 14  
Tel.: 948 51 06 07 - 948 51 04 75  
LEITZA (Nafarroa)

HERRIKO TABERNA  
**Torreña**  
Euskal presoak etxera!  
Tel.: 948 61 09 09

**BIKOITZ** taberna  
PINTXOAK • OTARTEKOAK • PASTELAK • TARTAK  
Enkarguak ere hartzen ditugu  
Elbarren, 16 • Tel.: 948 51 00 72 • LEITZA



# MARMARIREN AHOLKUAK LIGATZEKO

Marmari

EZ IBILI LUZEEGI ADARRETATIK.



INTERESA EZ NABARMENEGI ADIERAZI.



'INDIFERENTZIAZKO' POSEA MUTURRERAINO EZ ERAMAN.



'DOPINIK' GABE ETA GARBI SAMAR EGIN, EGIN BEHARREKO PROPOSAMENAK.



EZ SAIATU SEKRETOA GORDETZEN, DENOK BEREALA ENTERATZEN GARA ETA.



GOGORATU EUSKARAZ BERDIN-BERDIN LIGATZEN DELA.



## Gaztañaga

TABERNA

Otartekoak, pintxo beroak,  
kaxuelak

Tel.: 948 61 07 08

## SAGASTI

TABERNA ETA JATETXEA  
Gosariak, kaxuelak, ogitartekoak  
Bazkariak eta afariak

Tel.: 948 61 06 37 - LEITZA

## le i TABERNA

t z a  
r r a

Huarte Gotzaia 19  
Tel.: 948 51 03 52  
LEITZA

## IRRIKARREZ • Primerako gidaria



Gizon bat, emakume bat eta beren semea doaz autoz errepedean zehar. Gizona, gidari on baten gisa, semeari seinale bakoitzaren esanahia esplikatu doa:

—Aurreko horrek, 80km/h abiadura gaintzea debekatua dagoela esan nahi du, beste hark aldiz, aurreratzea debekatua dagoela, hark, izotz arriskua dagoela, ...

Bat batean, “Guardia Zibil” bikote batek geldiarazi eta bietako bat honela mintzatzen zaie:

—Egunon. Nire lagunak eta nik, ikusirik, ereduzko gidari bat zarela, 20.000 pezetatako sari bat ematea erabaki dugu.

—Oso ongi (gizona), primeran etorriko zaizkit “gidatzeko baimena” ordaintzeko.

—Nola? Ez daukazula “gidatzeko baimenik”? 50.000 pzta-ko isuna.

Hau entzun ondoren honela dio emakumeak:

—Esan dizut, horrenbeste edan eta ez zenuela autorik hartu behar!

—Eta gainera edana zaudela. Beste 50.000 pzta-ko isun bat.

—Esaten nizun aita, lapurtutako autoarekin ez ginela urrutira iritsiko.

## • Ezin tentatu!

Maritxuk, egundoko senar puska omen zeukan eta gurasoen etxean bizi zen. Behin amarekin hizketan ari zela, honela galdetu omen zion amak:

—Zure senar puska hori, ohean ere sekulakoa izanen da ba, ezta?

—Bai zera, ez dit kasurik ere egiten, gauero bere ditzosozko liburu hori irakurtzen jarduten da.

—Beroarazi ezazu zerorrek, zure goialdeko pare eder hori erakutsiz, ikusiko duzu nola berotuko den.

Horrela ba, Maritxuk saiatu behar zuela ba eta gaua iritsi orduko ohean sartzen dira senar-emazteak (bitartean Maritxuren ama, ate atzetik zelatan).

—Aizu, Josetxo, ikusten al duzu zer daukadan hemen? (Maritxuk, titia erakusten dio)

—Bai, emakumea, bai. (Liburua irakurtzen jarraitzen du)

—Eta, beste hau ere ikusten al duzu? (Beste titia erakutsiz)

Halako batean, Josetxok eskua luzatu eta Maritxuren hanka artera zuzentzen du.

“Azkar ikasi du gure Josetxo honek” amak dio bere baitan eta ohera joaten da.

Hurrengo goizean, ama alabak sukaldean daudela honela zuzentzen zaio ama:

—Ze, Maritxu, atzo gauean ongi, ezta?

—Atzo gauean, beti bezala, ezer ez.

—Nola ba, ate atzetik begira egon nintzen eta Josetxok leku onera zuzendu zuen ba eskua.

—Gauero gauza bera egiten du, behatza busti, orria pasatzeko!

## GALDETEGIA • Ezetz asmatu

1.- Zer da annamita?

- a.- Himalayako mendi gailurra
- b.- Vietnamgo hizkuntza ofiziala
- d.- Perretxiku mota bat

2.- Nork idatzi zuen «100. street-eko geltokia?»

- a.- Patxi Zabaletak
- b.- Pako Aristik
- d.- Iñaki Zabaletak

3.- Zein egunetan ospatzen da San Juan bezpera?

- a.- Ekainaren 22an
- b.- Ekainaren 23an
- d.- Uztailaren 23an

4.- Zein estatutan dago Akitalia lurraldea?

- a.- Italian
- b.- Suitzan
- d.- Estatu frantsesean

5.- Nork argitaratu berri du «FM 99.00 DUB MANIFEST»?

- a.- Fermin Muguruzak
- b.- Manu Chaok
- d.- Bad Religione

6.- Zein auzotan dago Artxikonea baserria?

- a.- Erasoten
- b.- Arkiskilen

d.- Gorritzaranen

7.- Nor da Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria?

- a.- Xabier Arzallu
- b.- Juan Jose Ibarretxe
- d.- Karlos Iturgaitz

8.- Nortzuk parte hartu dute Pangea espedizioan?

- a.- Diego Garcia eta Ainhoa Berruetak
- b.- Miel Mari Elosegi «Luze» eta Aitziber Olanok
- d.- Arantxa Iturbe eta Koldo Izaagirrek

9.- Zenbat pezeta dira 26,99 euro?

- a.- 6.590 pta
- b.- 2.680 pta
- d.- 4.490 pta

10.- Zein izen du Leitzako mendi taldeak?

- a.- Urepel
- b.- Mendibil
- d.- Aizan

Soluzioak: 1-b, 2-d, 3-b, 4-d, 5-a, 6-d, 7-b, 8-b, 9-d, 10-b

-Denak asmatu badituzu, zorionak! Leitzako jakitunena izendatuko zaituzte

-9 asmatu dituen ere fenomeno bat da, laster katedradun izatera irits daiteke

-8 asmatuta ere oso ongi, ez duzu «ohorezko matrikula» lortu, baina tira,... Konformatu beharko duzu

-7 asmatu badituzu telebistako lehiaketa bate-

ra joateko prest zaudela esan daiteke. Zorte on!

-6 asmatuta ere, nahiko ongi, baina zure eza-gutza hobetu dezakezu

-5 asmatu dituenak, tira... azterketa gaintu du, baina juxtu-juxtu

-4 asmatu badituzu has zaitez egunero egunkariak irakurtzen, beharra baduzu eta

-3 asmatu dituenak kezkatzen has daiteke

-2 asmatu dituenak bere herria ere ezagutzen ote du?

-Bat asmatu duenari zer esango diogu ba: batere ez asmatzea baino hobe izanen da bat asmatzea, baina hala ere desastre hutsa haiz!

-Eta batere asmatu ez duenari... hobe deus ez esatea. Berak atera ditzala kontuak



## IRRIEFARREZ • Ezintasuna

Senar-emazteak, bost urte ezkondurik, biak lanean, eta azkenik familia handitzea erabakitzen dute. Zeregin horretan jarduten zuten gaue-ro, baina alferrik, hilabeteak igaro eta igaro eta emakumeari berdin-berdin etortzen zitzaion hilerokoa. Gauzak horrela, erremedio bila, medikuarengana jotzea erabakitzen dute. Medikuarenean txanda hartu eta hor doaz senar-emaztea, medikuari beren arazoaren berri ematera.

Kontsultatik irten dira eta etxerako bidean doazela honela esaten dio emazteak senarrari: Esaten nizun nik Joxe, umeak egiteko aurretik egin behar zela eta ez atzetik!

## EROSKOPOA



**ARIES:** in zazo nahi dozona, edo behar dozona, eta ez bestek nahi duena.



**TAURUS:** gasolina asko garestitu bada, ibil zattez bizikletan. On inen dizo



**GEMINI:** buruko miñe jarri zazola? ba bada-kizo, aspirina bat hartu eta ohera



**CANCER:** telebisioko zabor gutxio ikusi eta irakurketa hobexegoak aukeratu



**LEO:** parranda gogoare sartu zazo dabaneko. Noiz in ziñun azkena?



**URGO:** aurreztu dirue, hemendik gutxire gastu haundin bet iza-nen baitozo



**LIBRA:** egualdin aitzakie jarri kirola ez itteko, horrei alperkerie deitzen zaio



**SCORPIUS:** futbol izarrak dirutze ikaragerrie irabazten eta zu haik miresten? ahaztu itzazo!



**SAGITTARIUS:** arropa gehio behar al dozo? gela armario bihurtu beharko dozo



**CAPRICORNIUS:** badie aspaldi ikusi ez dittozon launek. Zertako dau telefinoa?



**AQUARIUS:** telebisioko lehiaketan baten sari bikañek irabaziko dittozo aurki



**PISCIS:** zozo-zozo, sofán etzanda, deus in gabe? hola altxatu behar al dozo herrie?

## LIZARRAGA

### Harategia

Tel.: 948 51 02 83



## ADUR

- Otartekoa ogi beroarekin
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak
- Olagarroa - Grabak
- Ziztorra sagardotan

Elbarren, 16 - Leitza  
Tel.: 948 61 08 64

## Arakindegia

### Jatetxea

Tel.: 948 51 00 52



Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel.: 948 51 04 67 - LEITZA

## Perurena

### Harategia

Tel.: 948 51 01 64

## Okindegia - Gozotegia

### EGYZKITZA

Erreka, 3 behe - Tel.: 948 51 06 14 - LEITZA  
Elbarren, 35 - Tel.: 948 61 06 46 - LEITZA  
San Frantzisko, 24 - Tel.: 943 65 00 41

## Jose Ignacio Arzallus

### Harategia - Urdaitegia

### Etneko txistorra

Tel.: 948 51 03 77 - LEITZA  
Tel.: 948 68 30 42 - BERASTEGI

## Gaztea zara.

## Ospa ezazu!

NAFARROAKO KUTXA

## Esaiguzu nolakoa zaren eta zein pentsio komeni zaizun esango dizugu

CAJA LABORAL  
MONTAÑANA

## Pako Zufiaur

**Sexua, droga edo rock & roll-a?**  
Sexua eta rock & rolla  
**Zenbat ordu lo egiten duzu egunero?**  
7 ordu  
**Nor aukeratuko zenuke bidai luze bat egiteko: hippya, punkya, heavya edo pijoa?**  
Heavya  
**Ikusi duzun azkeneko pelikula?**  
«La comunidad»  
**Irakurri duzun azkeneko liburua?**  
«Olvidado rey gudú»  
**Zertaz idatziko zenuke nobela bat?**  
Amodioaz  
**Zer egin behar da ejertzitoarekin?**  
Desagertuarazi  
**Leitzakoak al dira munduko pestarik onenak?**  
Ez  
**Zein da eroagoa, behia edo gizakia?**  
Gizakia  
**Ehiza, futbola, pilota edo gastronomia?**  
Gastronomia  
**Zer sortu zen aurrena, oiloa edo arrautza?**  
Paso  
**Gailetak denborarekin gogortu egiten dira, madalenak, berriz, denborarekin bigundu. Zergatik?**  
Jaten ez ditugulako  
**Gizonezkoei bizarra ateratzen zaie. Emakumezkoei gutxiago. Zergatik?**  
Bestela horren politikak izanen ez zirelako  
**Leitzan zer falta da?**  
Musika hobe tabernetan  
**Leitzan zer dago sobera?**  
Motoak



## Arantxa Ariztimuño



**Sexua, droga edo rock & roll-a?**  
Sexua eta rock & rolla  
**Zenbat ordu lo egiten duzu egunero?**  
7-8, nahi baino gutxiago  
**Nor aukeratuko zenuke bidai luze bat egiteko: hippya, punkya, heavya edo pijoa?**  
Punkya edo hippya  
**Ikusi duzun azkeneko pelikula?**  
«Poder absoluto»  
**Irakurri duzun azkeneko liburua?**  
«Los días secretos de la abundante felicidad». Gomendagarria  
**Zertaz idatziko zenuke nobela bat?**  
Nork bere burua bilatzeaz, ezagutzeaz  
**Zer egin behar da ejertzitoarekin?**  
Bukatu  
**Leitzakoak al dira munduko pestarik onenak?**  
Bai. Hala ere, Sanferminak ere hor daude  
**Zein da eroagoa, behia edo gizakia?**  
Gizakia  
**Ehiza, futbola, pilota edo gastronomia?**  
Gastronomia  
**Zer sortu zen aurrena, oiloa edo arrautza?**  
Oiloa  
**Gailetak denborarekin gogortu egiten dira, madalenak, berriz, denborarekin bigundu. Zergatik?**  
(zalantzak, tik-tak, tik-tak,... denbora pasa), osagaiengatik: gurina, irina,...  
**Gizonezkoei bizarra ateratzen zaie. Emakumezkoei gutxiago. Zergatik?**  
(sorbaldak altxatuz) hormonengatik  
**Leitzan zer falta da?**  
Animazio gehixeago, gazteentzako ekitaldiak eta tokiak  
**Leitzan zer dago sobera?**  
Guardia zibila, bakalloa